

Maite Arancegui Milan

A maila • 3 aipamena

Maite Arancegui Milan dut izena eta betidanik bizi izan naiz Beasainen. Txikitatik gustatu izan zait irakurtzea, begi irekiekin amets egitea, mundu berrietan murgiltzea eta konturatu gabe azkeneko orrialdera iristea. Hala ere, egia esateko, idazten nahiko berria naiz eta hau da lehiaketa batera aurkezten dudana lehenengo lana. Poz handia eta idazten jarraitzeko bultzada eman dit saria irabazteak. Gustatuko zaizuelakoan.



ZURI BELTZEAN

Olarribeko geltokia ilun eta hautsez beteriko hodi handi baten antzekoa zen. Alegia, "hiriko hustubide" deitzen ziotenak ere baziren. Hormetan jarritako argi luze eta txuriei esker ikus zitekeen, baina ez zegoen ezer aipagarririk, trenbidea, plataforma eta haien arteko zulo beltz iluna.

Hodian sartzen ziren pertsonak ere txuri beltz eta grisez margotuak zeuden. Bazirudien sartu orduko kanpoko epeltasuna nahita alde batera utzi edo iragazki baten bitartez sartzen zirela haien izatearen osagairik finenak. Hala, ikusten ez edo ezkututzen ziren koloreak azaleratzen ziren lur azpiko parada hartan.

Jonek ere egun hartan, begiak ireki bezain laster, zurbilik ikusi zuen bere logela. Ez zitzaion asko axola izan, "goizekoa" egin beharra zuen eta. Ohetik altxatu, ispilu parean jarri eta kamiseta kendu zuen. Bere gorputz txuri eta grisa aztertu zuen eta bereziki atal hura, gizonek ez duten atal hura, ikusi zuen ispiluan islatua.

Pertsonok ezin dugu geure gorputza zuzenean ikusi, beti nonbait islatua ikusten dugu. Ispiluez, sakelako kameraz, ur putzuetako irudi dardartiez fidatu behar gara geure forma zein den jakiteko. Hala ere, Jon itsua izango balitz ere erraz jakingo zukeen bere bularrean itsatsitako titi haiek ez zirela bere benetako forma. Gaur, bereziki, bere bularra zuria eta titi puntak haien arrosa galtzeak ez du aldaketarik ekarri eta, egunero bezala, ispilu ondoko benda zabal eta luzea hartu du eta bere bularra estu inguratu du telazko zatiaz.

Estuago, gogorrago, lerro makurra lerro zuzena bihurtu arte.

Jonek ezin du oihalak hain estu lotzeak sortzen dion gorritasuna ikusi eta, eskertu egin du, bere gorputza bere benetako formarekin ez duela bat egiten segundo batez ahazten lagundu diolako.

Hala ere, egun luze baten ostean, geltokiko metalezko eserleku hotzetan eserita ezin du oihalak sortzen dion mina alde batera utzi eta ezjakinarena egin. Jon ilustratzailea da eta txikitan mina negar egitearekin batera joaten zela uste zuen. Akuarelen antzera, minari gero eta ur gehiago botaz gero, desagertuko zelakoan zegoen. Orain, barrutik ez zaio tantarik ateratzen.

Jon ez bezala, bere aldameneko neskak ez dio negar egiteari utzi azken hamar minutuetan eta alboan duen amonak bere bizkarra laztantzen du kontsolatu nahian. Ez du hitzik esaten baina neska gaztearen rimmel orbanak garbitzen eta sikatzen laguntzen dio samurtasunez.

Amonak Soledad du izena, baina betidanik bere ingurukoek "Sol" deitu izan diote. Hala zen duela urte batzuk arte behintzat. Antonio hil zenetik, Solek ez du harreman askorik izan bere auzokoekin eta betiko lagunak hiletetan ikusi izan ditu banan-banan, bera bakarrik geratu arte.

Lehen ez zion hainbesteko garrantzia ematen bakardadeari, etxetik atera eta hiruzpalau ezagun, lagun eta lagun minekin topatzen zen erosketetarako bidean baina, orain, inorrek ez. Kuadro bat margotzerakoan kolore bat falta izan balitzaio bezala sentitzen zen Soledad. "Ez badira etortzen etxera, joan zaitetz zu" zioen Antoniok eta hala egin zuen.

Urdinaren faltan, zerua laranja margotzen hasi zen eta hainbat taldekako jardueretan eman zuen izena: igeriketan, irakurketa eta bidaia taldeetan...

Hala ere, urte batzuen ostean eta Antonio galdu ondoren, Solek ezin zuen bururik altxatu eta gaur goizean bere ingurua kolorerik gabe ikusi zuenean, ez zion inori ere ezertxorik esan. Bere ileak zuria izaten jarraitzen zuen eta azalak are zuriago, ez zegoen aldaketa nabarmenik eta, gainera, zerbait esan izan balu ingurukoek zorotzat hartu eta eroetxe batera bidaliko zuketean.

Ondorioz, azken hilabeteetan bezala ez du inolako soinurik egin. Jantzi, gosaldurik, loreak ureztatu eta goizeko enkarguak egin ditu isilean. Zuri beltzean. Egun hura asteartea da, azoka eguna, eta Solek gertu dagoen parke bat igaro du asteartero egiten duen bezala. Nolabait umeen algarak eta barreak entzuteak barrutik samurtzen du Sol. Berak ere hura bizia du.

Horregatik, Olarribeko geltokian bukatu duenean eta Maddi negar batean ikusi duenean, segituan gerturatu zaio. Berak ere negar hura bizia du. Maiteminduen negarra.

Maddik Solek eskaintzen dion beste mukizapia hartu eta haren alboan jarri da. Sol dirudien baino sendoagoa da eta horrek Maddi kontsolatu du, ez dakielako zer gertatuko ote zen bera ez balego. Momentuko aingura da, ezezagun bat.

Maddik goiza oso ondo hasi du. Zazpitan esnatu zerbait azkar jan eta aurreko egunean prestatutako arropa jantzi du, zimurrik gabea, guztiz leuna. Maddik ez zion halako garrantzirik ematen xehetasunei, baina gero Olga ikusi zuen bulegoko pasilloan.

Madriletik iritsi berria. Ile hori uhindua, txanbra zuri erdi gardenak eta ezpainetako gorria.

Une horretan, Maddi, bere arropa arrunt eta aurpegi garbiarekin gutxiago sentitu zen. Olga baino gutxiago. Horrek arropa berria eta aurpegian hauts finak jartzera bultzatu zuen, berak ez duelako Olga baino gutxiago izan nahi, berak Olga maite duelako.

Bere aldakaren erritmoa du gustuko, bere takaien soinua, bere irribarre zuria eta bere ahotsaren soinua. Benetan du gustuko, ez da aldi ez fase, bere bihotzak egiten duen jauzi txikiak dira, bere eskuek sentitzen duten amultsutasuna eta eztarrian sumatzen duen urduritasuna.

Hala ere, ez du ezer egiten. Olgak gizon garai eta gihartsuak ditu gustuko, berak irri txikien artean esan zionaren arabera. Maddik argi dauka horrek ez duela erremediorik, ezta haren irri txikiak sorrarazten diotenik ere.

Baina hori ez da arazoa, arazoa gaur goizean gertatu da nesken komunitetan.

- Zein ederra den Olgak ekarri duen soinekoa! Benetan trebea da moda kontuetan, ez al duzu

uste?- galdetu dio Arantxak Mireni. Maddi komuneko gela txikian geratu da atearen atzean. Zerbaitek hori entzun behar zuela xuxurlatu dio.

- Bai! Benetan oso polita zen. Badakizu zeinek ere sumatu duen?- Mirenek galdera airean dantzan utzi du.

- Ezetz asmatu...- berak ere erantzuna airean eseki du. Maddiren bihotzak ez bezala. Maddiren bihotzak lurra kolpe batez jo du.

- Beti izan al da horrelakoa? - itaundu du berriz ere Arantxak.

Mirenek ez du erantzun baina Maddik jarri duen aurpegia erraz irudika dezake. Bileretan jartzen duen nazka aurpegia gogoratu du.

Dena jaso eta poliki irten dira komunetik, Maddi zeharo begi-ilun utziz. Komuneko pareta arrosaren kontra. Bat-batean, elastikoak estutzen duela konturatu da eta lepotik tira egin dio arnasa hartu ahal izateko. Ezin du. Gehiegi da.

Komunetik atera, poltsa hartu eta lasterka irten da bulegotik. Ez du negarrik egin. Ezin du, hain da itolarria, ezen bere begiek ere arnas hartu behar dutela ere sentitzen dute. Kliskatu kale erdian eta koloreak ikusteari utzi die.

Teilatuak, hormak eta eraikinak margulduak ikusi ditu. Nahaspila horren barruan ihes egin dute lehen malkoek. Kaleko jendearen artean jo du lurra. Baliteke horregatik, nahi gabe edo nahita, geltokira iritsi denean, Soleren laztanak eta usain adeitsua ez axola izatea.

Jada jende guztiak ikusi du. Baita bere ondoan eseri den gizonak ere. Maddi begira geratu da, bere kopeta eskuekin masajeatu eta guztiz jezarri da eserleku deserosoan.

Berak ere negar egin nahi du Maddik egiten duen moduan. Baina ezin du, hori ez litzateke bat etorriko munduari erakutsi nahi dion irudiarekin eta. Nahiago du barrutik negar, barre eta garrasi egin. Egunero bezala. Badirelako zenbait gauza berak, gizon bezala, ezin dutenak egin, hala zioen bere aitak behintzat.

Aitorrek lurrinak ditu gustuko, gustukoenak lore eta banilla lurrinak dira, egunero lan egiten duen gimnasioarekin bat ez datozenak. Irakurtzea, idaztea eta hitz egitea ere oso gustukoak ditu baina bere ahotsa ez da bereziki baxua eta azkenean, iseka ez egiteko, ez du ezer esaten eta bena dirudi. Dantza, musika eta abestea, txantxa badirudi ere, asko maite ditu, baina horrelako zaletasunek dakartzaten usteak ez ditu gogoko.

Badirudi zerbait gogoko izateak, beste gauza bat izatea dakarrela beti.

Badirudi arrosa eta urdinaren artean ez dagoela morerik, lerro beltz gogor bat baizik.

Badirudi maskulinitatea eta feminitatea banatzen duen zerrenda luze bat dagoela erdian eta Aitorrek ez duela ez bata ez bestea betetzen.

Gaur goizean jasan behar izan dituen isekak, txantxak eta ahapeka entzun dituen esaldiak bereziki izorratu dute eta ezin izan du jasan.

Gimnasiotik atera eta geltokira joan da etxera bueltatzeko asmoz. Berak ere, Maddiren antzera, ez du negarrik egin, baina bere maisailetako gorriminak salatzen du barruan duena.

Oinez eta burumakur, ez du nabaritu noiz utzi dion bere ingurua bizirik ikusteari. Dena hits dago.

Eta horrela, laurak Olarribeko zulo beltzean sartuta, trenari itxaron diote isilik. Jonek kamiseta azpian zuen benda lasaituz, Solek berak behar izan dituen laztanak Maddiri emanaz eta Aitor garun more horretan duen korapiloa askatu nahian.

Bat- batean, treneko zarata entzun da errailetan zehar, hodi handi horren pareten kontra joaz. Laurak altxatu dira, Maddik aurpegia zikinduta du, baina ez du negarrik egiten.

Inguruko beste jendeak ez dira mugitzen, eskuartean duten sakelakoen argi urdinek mamu itxura ematen diete haien aurpegiei. Ez dira konturatu trena datorrela, etorri dela. Trena gelditu eta ohiko pi-pi-pi-pii egin du. Ateak ireki eta sartu egin dira.

Treneko eserlekuak geltokikoak baino askoz erosoagoak dira eta aireak ere badirudi garbiagoa dela. Trena martxan jarri da eta taldeak konturatu orduko, zama arindu duela eta berriro arnasa har dezakatela sentitu du.

Trenak geltokitik, zulo beltzetik, atera ditu.

Tunel guztien amaieran dagoen argiak koloreak eta begietan bizia antzemateko gaitasuna bueltatu die.